



**15/2022 EBAZPENA, otsailaren 3(e)koa, Barakaldo Sestaoko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barakaldo Sestaoko ESIko Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren**

## AURREKARIAK

Barakaldo Sestaoko ESIko zuzendari gerentearen ekainaren 9ko 234/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barakaldo Sestaoko ESIko Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021ko irailaren 28ko EHAA 194 zk. eta 2021ko urriaren 5ko BOE 238 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021ko urriaren 27(a)n amaitu zen.

Barakaldo Sestaoko ESIko zuzendari gerentearen azaroaren 18ko 327/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barakaldo Sestaoko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzaoko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Otorrinolaringologiako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldon 2022ko otsailaren 3(a).

Barakaldo-Sestaoko ESIaren zuzendari gerentea,  
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.





**I. ERANSKINA**

**BARAKALDO SESTAO ESIKO OTORRINOLARINGOLOGÍA KO ATAL  
SANITARIOKO BURUA IZENeko LANPOSTUA**

**ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin-betiko zerrenda:

Victor Juan Onaniel Perez

Baztertuak:

Ez dago

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



**II. ERANSKINA**

**BARAKALDO SESTAO ESIKO OTORRINOLARINGOLOGÍA KO ATAL  
SANITARIO KO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

**BALORAZIO BATZORDEA**

**\*Epaimahaiburua**

**Titular:** Maria Lourdes Vivanco Gómez

**Ordezkoa:** Joseba Julen Ballestero Zárraga

**\*Idazkaria/Secretaria:**

**Titular/Titular:** Karmele Iglesia Rosende

**Ordezkoa/Suplente:** Miren Idoia Sagarminaga Ugalde

**\*Lehenego kidea/Vocal primero:**

**Titular/Titular:** Ana Jesus Bustinduy Bascaran

**Ordezkoa/Suplente:** Ainhoa Epalza Bueno

**\*Bigarren kidea/Vocal segundo:)**

**Titular/Titular:** Jose Antonio Municio Martin

**Ordezkoa/Suplente:** Francisco Valcárcel Martin

**\*Hirugarren kidea/Vocal tercero**

**Titular/Titular:** Agustín Maria Pérez Izquierdo

**Ordezkoa/Suplente:** Javier Gomez Suarez

**\*Laugarren kidea (IVAPek proposatua/Vocal cuarto propuesto por el IVAP):**

**Titular/Titular:** Vicente Piñeiro Posse

**Ordezkoa/Suplente:** Javier Aitor Zabala Lopez De Maturana